

23/24 ikasturteko Harrera Ekitaldia

Irailaren 7an, 15:30etan

Ikasleen **harrera ekitaldia irailaren 7an 15:30etan** izango da, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko lehenengo eraikineko areto nagusian (**HEFA-I eraikina**: Tolosa Hiribidea, 70).

Saio horretan, besteak beste, Masterraren inguruko oinarritzko informazioa emango dugu eta Irakasleen Prestakuntza Masterraren funtzionamenduari buruzko zalantzak argitzeko aukera ere izango dugu.

Zehatz mehatz, harrera ekitaldian jarraituko den gidoia hauxe izango da:

- Fakultateko dekanoren agurra.
- Hezkuntza sailburuordea Begoña Pedrosa Lobato andrearen agurra.
- Masterraren inguruko oinarritzko informazioa: kudeaketa akademikoa, Practicum eta Master Amaierako Lana.
- Masterra egiteko oinarritzko orientabideak.
- Espezialitate bakoitzeko bilerak:
 - o Natur Zientziak eta Matematikak: 2.6 gela.
 - o Giza eta Gizarte Zientziak: 2.2 gela.
 - o Musika Hezkuntza, Arte Eszenikoak eta Dantza: 0.1.1 gela.
 - o Hezkuntza Orientazioa: 0.1.2 gela.
 - o Teknologia: 2.7 gela.
 - o Gorputz Hezkuntza: 0.6.1 gela.
 - o Hizkuntza eta Literatura: 2.1 gela.
 - o Hezkuntza Artistikoa: 0.6.2 gela.

Masterraren funtzionamendu egokia lortzeko garrantzitsua da zure presentzia izatea, beraz, bertan ikusi ahal izango dugulakoan, jaso ezazu agur bero bat.

Masterreko Batzorde Akademikoa